

# MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Edozeinentzako eskuragarri izatea da gure ideari balioa ematen dioten faktoreetako bat. Gure zerbitzuak gaur egun interes publikoa du, hau da, gizartearen gehiengo kontzientziatuta dago eguzkitako krema ez erabiltzeak osasunean izan dakartzan ondorio txarretan. Egia da egunerokoan erabiltzea ez dela hain ohikoa eta hori sustatzeko gaiari buruz informazioa eman beharko dugula.

Gure zerbitzuekin behar orokor bat asetuko dugu. Gure erosleen artean desberdintasunak aurkituko ditugu, batzuk produktuan interesa izango dute gure produktuak ingurumenarekiko errespetagarriak direlako eta beste batzuk, berriz, pertsona bakoitzaren poteak berrerabiltzeko aukera izanik plastiko gutxiago erabiliko dutelako. Badakigu, egongo dela gizartearen sektore bat horrek dakartzan prezio desberdinagatik ezetz esango diola gure zerbitzua erabiltzeari.

Ondorio moduko bat bezala, ez gure bezero perfila nahiko zabala da. Erabiltzeko eta nolabait erosteko ahalmena dutenak garrantzi berdina dute. Interesa ia globala da eta falta den kontzientziazioa guk egingo dugu guztizkoa izatea lortzeko.